



VII. HITZA TXAPELKETAREN FINALAK HURBIL

Gaur kadete eta jubenilen finalerdiak jokatu dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, jaialdia 18:30ean hasiko da >5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-06-27

VIII. URTEA 2.038. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosako koadrilek bazkaria Euskal Herria plazan egin zuten atzokoan, eguzkia lagun zutela. ENERITZ MAIZ

Mikel Garmendiari ongietorri beroa egin diote

VILLABONA Espetxe desberdinetan 15 hilabete egon ondoren, ekainaren 8an aske gelditu zen s

EGOITZ ITURBE
ELA SINDIKATUKO KIDEA

«Gobernanteek patronala ordezkatzen dute»

GREBA OROKORRA Ekainaren 29an manifestazioa egingo da Tolosan, 18:00etan 4



A. IMAZ

SAN PEDRO JAIETAKO EURIAK SANJOANEN SUA INDARTUKO DU

GIZARTEA Tolosan agur esango diote Jaiei; Leaburun, Urkizun eta Asteasun ez da gozatzeko aukerarik faltako ondorengo egunetan 6-7

Oharra:

HITZA argitaratzen duen Tolosa Herria Hedabideak enpresako langileek bat egin dute astearterako deitu duten Greba Orokorrarekin. Ondorioz, asteartean ez da HITZArik izango. Asteazkenean izango gara berriro ere zuekin.

live7
EUSKARAZ

Windows 7 eta Live euskaraz doan deskargatzeko aukera:

www.euskara.euskadi.net/euskara_soft

ekainak 28
junio

SEKUE LESBIANA NAIZ

ARGI DAGO

Euskal Herriko Gay-les askapen mugimendua

ehgam

Hegoafrika jokoaz kanpo



» **Uzturretik**

Iraitz Lizarraga

Inoiz lortu ote du Hegoafrikak azken egun hauetan bezain besteko arreta?

Mandela bera askatu zuten egunean ere ez zen honen sonatua izan afrikar hego muturreko herrialde hau.

Naranjitoren garaiak pasa zirenetik ez diet nik kasu gehiegirik egin mundialei; eta futbolari ere ez, egia esan, beraz hitz egiten dudaren erdia ezjakintasunetik datorrela aitortu beharra daukat. Zergatik aukeratu ote dute Hegoafrika mundialak ospatzeko?

Afrikar egitea beharrezkoa omen zen: mundu garatuko kontzientziak lasaitzeko beste estrate-

gia baten susmoa hartzen diot nik honi; ez dezala inork esan *hirugarren munduaren* alde ezer egiten ez denik!

Ez dut imajinatu ere egiten zer nolako dirutza gastatuko zuten azpiegituretan eta segurtasunean; ez dut uste mundialek hurbilduko diren jokalaria eta mandatari handiak afrikar lurralde bateko azpiegituretara moldatzeko asmatan joan direnik!

Luxuzko burbuila bat eraiki dute mixeria nagusi den paraje batean. Nork izango du azpiegitura

guzti hauetaz gozatzeko aukera? Nora joango dira irabaziak, *lehenengo mundura* ez bada? Nork izango du futbol zelai zoragarri hauetara sartzeko aukera? Zenbatean ote dago partidua bat ikusteko sarrera? Ez dut uste hegoafrikarren poltsikora egokituko direnik? Bestalde... zenbat afrikar taldek parte hartzen dute lehiaketan hontan?

Eta azken galdera: zein onura aterata dezake Hegoafrikak, luxu, dirutza eta glamour desfile hontatik?

Askajota, indar gehiegirekin botatuko penalti batean, baloia estadiotik aterata eta kanpoan dagoen haur baten eskuetara eroriko da;

haurra korrika joango da lurrezko kaleetan zehar, txabola kaxkarrez eraikitako auzoko orube batetara ino eta han lagunekin, futbolari handia izatera helduko dela amestuko du eta irabaziko duen dirurakin Adidas zapatila batzuk erosiko dituela; bere familiarentzat etxe handi bat, argindarra eta ura duena; eskola bat, ospitale bat, liburutegi bat, parke bat, jangela bat... eraikiko dituela. Milioika tona janari, ura, medizinalak, txertoak, lurrar lantzeko tresneria...

Baina halako batean, baloia lehortu eta ametasa deuseztatuko da... Penalti eta gol artean, jokoz kanpo geratu baita hegoafrikar biztanleria.

G Gutunak

Zutik euskal langileria!! Ekainaren 29an, GREBA OROKORRA

Ekainaren 29an gehiengo sindikalak greba deialdia burutuko du Hego Euskal Herrian, ekainaren 22an Espainiako kongresuan onartua izan den lan erreformaren kontra, inposizioen kontra eta gure eskubideen alde.

Batzuk horrela ulertuta ere ekainaren 29ko greba deialdia ezin dugu ulertu erreforma soil baten kontrako erantzun soil, bide baten barruan kokatu beharra daukagu, pasa den urteko maiatzaren 21eko grebarekin gehiengo sindikalak hasitako bidearen baitan, hain justu ere.

Krisia hasi zenetik hartu diren neurrietatik, bakar bat ere ez da izan langileen mesedetan eta pixkanaka langile kolektibo osoa ari da ondorioak pairatzen; langile ebentualak kaleratuz hasi ziren, ondoren espedienteak eta finkoen kalerapenak etorri dira, lan baldintzetan atzerapausoak, pentsioak izoztea, zerbitzu publikoak edota babes soziala murriztea... Orain langileen kontra Madrilen eraba-

kitako lan erreforma berri baten parean gara.

Murritzaketak bata bestearen atzetik etorri dira eta bide horretan jarraituko dute, orain artekoak nahikoa ez direla argi esan baitute.

Botere politikoa erabat lerrokatu da botere ekonomikoaren alde eta langileoi geratzen zaiguna mobilizatu eta borrokatzea da, aldaketa soziala eta politikoa irabaztea. Ez dagokigu langileoi krisiaren ondorioak ordaintzea, are gutxiago sistema kapitalista indartzeko neurriak direnean.

Euskal herritarroi eremu guztietan erabakitzeko eskubidea urratzen zaigu, Madrilen negoziatzen den erreformaren aurrean ikusle soilak izan gaitetzen nahi dute. Beste behin ere bertako instituzioek duten ahalmen legegile faltagatik Madriletik inposatuko digute langileri osoaren kontrako erreforma. Kapitala indartzera dator erreforma, beraz, erreforma bultzatu edo babesten dutenen aurrean erantzun beharra dugu. Zentzu honetan, PNV-k hartu duen erabakia ere oso argia izan delarik erreformak bidea izan dezan.

Erreformaren jokoan dagoena etorkizuneko lan harreman eredu da. Aurreko krisialdiak ere lan erreforma berriak onartu eta lan harremanak prekarizatzeko baliatu izan baitira. Ondoren etorritako hazkunde ekonomikoak langileen egoera ez zuen hobetu. Krisialdi honetatik ere indartua aterako da patronala, lan erreforma neurrikoa du, aurrera begira lan harreman eredu prekarioagoa izan dadin oinarriak jartzen dituelako.

Egoera honen aurrean badago alternatiba, alternatiba erreala, euskal estatu sozialista eraikitzea da. Bide horretan Euskal Herriak aldaketa politikoa eta sozialak behar ditu eta horretarako egun instituzio desberdinetatik burutzen diren politikak aldatu behar dira.

Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua behar dugu. Gai ekonomiko eta sozio laboraletan erabakitzeko eskumen osoa behar dugu. Eguneko markoa agortua dago eta kudeatzen dutenek dituzten marjen apurrak ere ez dituzte baliatzen. Euskal instituzioak Madriletik datorrena ontzat ematera mugatzen

dira. Marko honek, euskal herritarrok erabaki ahalmenik gabe, eskubiderik gabeko herritarrek bihurtzen gaitu. Honen aurrean Euskal Herriak subjektu politikoa gisa duen erabaki eskubidea aldarrikatuko dugu greba orokorraren bitartez.

Tolosaldea kalera aterata behar dugu. Alternatiba erreala bultzatu eta erasoak erantzun ez denok greban bat egin dezagun ekainaren 29an. Gehiengo sindikalaren lana bultzatu eta lagunduaz denon eskubideak babesten baititugu.
Tolosaldeko Ezker Abertzalea.

Bilgune Feministak bat egiten du Greba Orokorrarekin

Krisia hasi zenean lan merkatuan emakumeok egoera kaxkarrenetarikoa aurkitzen ginon.

Hasieratik esan genuen krisiak modu berezitan eragingo gintuela, eta hala izan da, emakumeengan prekarietatea bereziki handitu da, lan baldintzak okertu eta langile guztiei hainbeste eragin dien neurriak gure azalean bizi izan ditugu.

Espainiako gobernua onartu berri duen lan erreformak are eta egoera okerragoan utziko gaitu. Kaleratzeak merkatu eta errazten ditu, negoziazio kolektiboaren erasotzen du hitzarmenak ez aplikatzea erraztuz, irabazi asmoa duten kolokazio agentzia pribatuak sustatzen ditu, ABLEentzako mugak kentzen dira, enplegu prekarioa ez du desagerrarazten...

Emakumeak zapaltzen dituen sistema bera indartzen du erreformak.

Hori guztiagatik Tolosaldeko Bilgune Feministak dei egiten die eskualdeko emakume guztiei ekainaren 29ko greba orokorra babestu eta egongo diren mobilizazioetan parte har dezaten.

Goizeko 05:00etan piketeak iritengo dira Usabalgan polikiroldegitik.

09:00etan Trianguloa plazatik abiatuko dira.

11:15ean manifestazioa egingo da Donostian, Anoetako futbol zelailtik.

18:00etan manifestazioa burutuko da Tolosan Trianguloa plazatik.

Tolosaldeko Bilgune Feminista.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

G Gutunak

Tolosaldeko Herria Abian-ek babesaren ematen dio Greba Orokorrari

Herria Abianek bat egin du ekainaren 29an gehiengo sindikalak deitu duen Greba Orokorrarekin. Greba Orokorra Espainiako gobernuak onartu berri duen lan erreformari aurre egiteko ez ezik, aldatetaso soziala aldarrikatzeko ere badelako, lan erreformak gaur egungo sistema kapitalistan sakontzea ekarriko duelako, guk, herria Herria Abianeko partaideok (lanpostudun langileok eta langabetuok, emakumeok, gazteok, nekazariok, arrantzaletok, pentsiodunok, pertsona migranteok, ekologistok, disidente sexualok, gaitasun gabeziadun pertsonok, autonomo dependienteok, ikasleok...) eredu ekonomiko eta sozial alternatibo baten alde egiten dugulako eskualdeko langileria eta jendarte osoari 29an kalera ateratzeko deia luzatzen dizuegu.

Tolosaldeko diagnostikoa egin berri dugu, eta hemengo errealitate ikusirik grebara irteketako arrazoak biderkatzen zaizkigu:

-2600 langabetu, eta ehundaka pertsona EREtan murgildurik.
-Lehenengo sektorea, nekazaritza, krisian, eta abandonaturik.

-Etxebizitza arloan, espekulazioan oinarritutako eredu. Voith-Gorostidin, *pelotazo urbanistikoa* eta PNV eta Amenabarrek: jakinaren gainean egon arren, legeak onartutakoak baino 225 etxebizitza gehiago eraiki.

-Abiadura Handiko Trenaren Tolosako 3,8 kilometrotako trama, 71 milioi eurotan lizitatu da (11.786 milioi pezeta). Tolosaldean ez du geltokirik izango, eta eskualdeko herritarrok oso gutxitan erabiliko genuke.

-2005an Tolosako Gerontologiako publikoa itxi zen. Orain berri bat irekiko da, pribatua. Tolosako Udalak lur publikoa emango du, eta 600.000 euro inbertituko ditu

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako jatetxe batek, uztailea eta abuztuaren lan egiteko zerbitzaria behar du. Igandean jai. Interesatuak deitu: 665 70 87 70 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Berazubi auzoan etxebizitza salgai. 4. solairua, igogailuarekin eta sotoarekin. Gela guztiak kanpoaldera. Interesatuak deitu: 679 44 05 27.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean. 50 m²-ko Atikoa salgai. Egoera onean, oso argitsua. Igo-gailua badu, 141.839 euro (23.600.000 pezeta). Interesatuak deitu 943 43 00 20 zenbakira. Zuzeneko salmenta.

zaharrentzako erresidentzi berri honetan. Ondorioa: zerbitzu sozialen pribatizazioa eta diru publikoaren erabilera negoziatu pribatuetarako.

-Eta abar.
Tolosaldeak, Euskal Herriak eta Munduak Aldaketa Soziala behar du! Bultza Aldaketa!

Horregatik, berriz ere Herria Abianetik deia ekainaren 29an antolatu diren mobilizazio guztietan parte hartzeko:

-Goizeko 05:00etan piketeak Tolosako Usabal polikiroldegitik.

-Goizeko 90:00etan Trianguloko komertzioetan piketeak.

-11:15ean Donostiako Anoetako futbol zelaitik manifestazioa gehiengo sindikalak deituta.

-18:00etan Tolosako Triangulotik manifestazioa gehiengo sindikalak eta eragile sozialak deituta (tartean Herria Abian).

Tolosaldeko Herria Abian.

Kapitalisten planen aurreko borrokan...

Zapateroren gobernuaren herustura planarekin eta lan erreformarekin fase berri bat ireki da. Kapitalista espainiarrek, Euskal Herriko, Kataluniako eta Galiziako kapitalisten babesarekin, langile klasearen aurkako erasoak handitzeko erabakia hartu zuten eta PSOEren gobernu, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, hau praktikan jarritzen ari da. Honen ondorioz, gatazka sozial sakonagoak eta eze-gonkortasun politiko handiagoak sortzeko mehatxua egon arren, klase dominatzaileak ondorioztatu du garaia dela «neurri estrukturalak» martxan jartzeko.

Langile publikoen soldaten murrizketaren ondoren, Zapateroren gobernuak patronalak eskatzen zion ondorengo pauso handia eman du: lan erreforma basati eta historiko bat. Erreforma honekin enpresariengatik lan baldintzak bultzatuko dira langile klasearen eskubideak ikaragarri murriztu. Eta hala ere, CEOE eta Confesbakek ez dute nahikoa eta kaleratzeak gehiagomerkatzea eta erraztea, kotizazio sozialak jaistea eta gaur egungo babes sozialaren ereduaren erreforma bat eskatzen dituzte, hau da, kolpetik azken ha-

markadetako langile klasearen konkista guztiak suntsitzea. Honetarako, Zapaterori 2011ko gastu sozialerako 16.000 milioi baino gehiagoko herustura plan berri bat eskatzen dion burgesia europarraren babesarekin. Baita PP, PNV, CIU eta CC alderdi eskuindarrena ere, zeinak PSOE kritikatzeko aritu diren erreforma lehenago nahi zutelako, eta are gogorragoa desiratzeko zutelako. PNVko Josu Erkorekak onartu zuen bezala, lan erreformak «guztiz ezinbestekoak diren malgutasun elementuak» ditu baina ez da nahikoa. Noski, ezinbestekoak eta gutxienezkoak euskal burgesiarantz. Bitartean, langileek, krisi kapitalistaren benetako biktimak, ondorio guztiak ordaintzen jarraitzen dute pobrezia gehiagorekin eta 182.000 langabetuko zifra historikoarekin Hego Euskal Herrian.

Eraso larri hauen aurrean, Euskal Herriko gehiengo sindikalak maiatzaren 2lean hasitako bidea jarraitu du, ekainaren 29rako greba orokor bat konbokatuz. Konbokatorea hau politikoa izateaz akusatuta dirala ELA eta LAB, baina errealitatean greba orokor guztiak dira ekintza politikoak, non langile klaseak bere papera eta bere indarra errebendikatzen dituen gizarrean...».

CCOO eta UGTko agintariak ez lituzkete erabili behar burgesiak maneiatutako argudio hauek. Azkenean CCOO egin duen bezala (nahiz eta Nafarroan ez konbokatzea akatsa izan), beharrezkoa zen ekainaren 29ko grebara gehitzea batasun eta indar handiagoa emateko.

Zentzu honetan, irailaren 29ko grebak ere bateratua izan behar du, eta euskal sindikatuek babestu egin behar dute, egokia zen bezala Iparraldeari eragindako ekainaren 24ko estatu frantziarrek greba orokorra babestea. Ekintza sindikalaren batasunak, gure etsaiek euren erasoetan elkartuta dauden uanean, ez du esan nahi euskal sindikatuek beren errebendikazioak defendatzei edo sindikatu estatalak kritikatzeari uztea. Are gehiago, posible da eta beharrezkoa da gainera.

(Gutun guztia gure web orrian).

Ibon Artola, Euskal Herria Sozialista aldiarikoa kidea.

G Gutunak

Tolosarrekin jakin dezaten:

Interes orokorrekoa delako eta tolosarrekin herriaren egiten diren hainbat lanek dituzten ondorioak ezagutu dituzten:

Soldadu kaleko 10. zenbakitik idazten dizuegu, non dago hori?... Oraintxe esango dizuegu: etorkizuneko GERONTOLOGIKOAREN eta TOPIC TXOTXONGI-LOEN NAZIOARTEKO ZENTROAREN erdian, hain justu. Zeinen toki ona!

Gu oso pozik gaude gure ingurua era honetako eraikin garrantzitsuek egiten direlako... baina bada TRABA HANDI BAT honetan guztian. Izan ere, lanak egiteko eta Gerontologikoaren parkinga egiteko sinestezinako sakonera arte zuloak egin behar izan dituzte, eraitsi, kolpatu... Hau guztia gure etxebizitzetatik hiru metrotarabakarri egin dute eta hilabete askotan zehar. Horrela, gure estruktura eusten duten zimenduak agerian utzi.

Zer ekarri digu honek guztiak lanak jasateaz gain? Oraintxu berri utziko eta saneatutako gure eraikina goitik behera MUGITU, BIHURTU ETA PITZATU dela (udal-arkitekturek baieztatuta eta baita Udaletxetik at dauden beste-lakoek ere).

Hasieran, eta udaletxeari lehen keza aurkeztu eta gero, non lanak gelditzea ere eskatu genuen, nahiko ondo hartu gintuzten, nola ez ba! Beharrezko neurriak hartu-

ko zizutela esan ziguten, lasai egoteko... (promesak bakarrik). Egoeraren larritasuna dela eta etxebizitzetako bat utzarazi behar izan zuten, oso kaltetuta zegoen eta, baina denbora baterako... eta bi urte beranduago jabeak ezin du bere etxera itzuli!

Eta gainontzeko etxebizitzak? Ba, barruan jarraitzen dugu, itxi ezin daitezkeen leiho eta ateekin, itoginekin, gure paretak banatzen dituzten pitzadurekin, eta sabaia gure gainera erori ahal direla iragartzen duten karraskekinekin.

Bien bitartean, zer egiten dute udaletxeak eta lanen arduradunek? Ba, egoera «gogaikarriaren» aurrean, pilota bata besteari pasatzen diote (udaletxea, parkinga, Gerontologikoa, Topic...) prozesua ahal duten guztia luzatuz. Bien bitartean, egoera deseroso eta arriskutsu hau pairatzen jarraitzen dugu, bizitzen jarraitzen dugu, OZTA-OZTA BIZITZEN ari garela ez esatearren, gure eragin ez dugun zuzengabeko egoeran.

Honekin guztiarekin gure atsekabea eta batez ere, kezka agertu nahi dugu erantzunen atzerapenarengatik, eta gure udaletxeari bi urte eta gero erantzukizuna bere gain hartzeko eskatzen diogu. Tramiteak azkartzeko ere eskatzen diogu eta baita arazoa konpondu ahal izateko LEHENBAILEHEN erantzun serio bat emateko ere, ez behar bat gertatu baino lehen.

Soldadu Kaleko 10. zenbakiko Bizilagunen Elkarte. Tolosa.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IRURAKO IKASTOLA KOOP. ELKARTEAK
Langile bat behar du 10-11 ikasturterako

Haur Hezkuntzako teknikaria 2 urteko gelarako.
Curriculumak e-mailez bidali behar dira
irura@ikastola.net

Jasoko diren azken eguna: ekainaren 30a

E **Elkarrizketa**

EGOITZ ITURBE > ELA sindikatuko eskualdeko arduraduna

ASIER IMAZ

Ekainaren 29an, asteartean, Euskal Herriko langileak kalera irten go dira. Eskualdekoek ere berdin egingo dute. Euskal gehiengo sindikalak Greba Orokorra deitu ditu langileak. Egoitz Iturbe (Legazpi, 1976) mobilizazioetan egongo da.

Goizeko 05:00etan piketeak irten go dira Usabalgo polikiroldegitik. 09:00etan Trianguloa plazatik abiatuko dira eta 11:15ean manifestazioa egingo da Donostian, Anoetako futbol zelaitik abiatuta. 18:00etan azkenik, manifestazioa burutuko da Tolosan, Trianguloa plazatik irtenda.

Zeintzuk dira ekainaren 29ko grebaren arrazoi nagusiak?

Krisi honetatik ateratzeko, Espainiako gobernutik hartzen ari diren neurriak lotsagarriak dira. Langileok jakin badakigu ez garaela krisi honen errudun. Eurak aldiz, «sistema aldatu behar dela», «kontrol gehiago egon behar dela» eta abar esaten ibili dira; bainagero, langileon aurkako neurriak bakarrik proposatu dituzte.

Zergatik dira aurkakoak?

Lehenik, gauza bat esatea gustatuko litzaidake. Guk iaz, maiatzaren 21eko greba orokorrean, neurriak hartu behar zituztela esan genuen. Ez bazituzten hartzen, langileontzat murrizketak etorriko zirela esan genuen. Azkenean horrela gertatu da. Zergatik diren aurkakoak? Argi dago. Toki guztietatik egin dituzte murrizketak, arlo guztiak hartu dituzte. Batetik, pentsionistak hartu dituzte eta euren soldata izoztekoetan dabilta. Bestetik, funtzionarioei beherapenak ezarri nahi dizkiete eta orain, lan erreforma: lan hitzarmena negoziatzeko garaian, enpresa buruei erraztasun guztiak jarri nahi dizkiete; kaleratzeak ere guk ordaindu beharko ditugu, eta jubilazioaren atzerapena ere hor dago.

Hainbat politikariek aipatzen duen ongizate gizartea, arriskuan al dago?

Dudarik ez eduki. Gainera, eurek esaten dute lan erreforma honek ez duela lanik ekarriko. Horrela, langileon baldintzak okertzen diren heinean, kontsumitzeko aukerak ere gutxitu egingo dira.

Greba Orokorra, egun bat izango da.

«Langileok ezer egiten ez baldin badugu, egoera hobetuko al da?»

Gehiengo sindikala ez da geldirik egon. Maiatzaren 21a eta gero, dekalogobatekin eginduen eta 150.000 sinadura bildu genituen. Hiriburuetan hainbat manifestazio egin ditugu eta ekainaren 12an ere, duela gutxi, kalera irten ginen. Azken bi urte hauetan ekintza ugari egin ditugu, gure mezua eta diskurtsoa zabaldu dela iruditzen zait. Ez da nahikoa izan eta berriro greba orokorra egitera behartu gaituzte. Eta agian ez da azkena izango. Grezian hamargarren greba dute; Italian bigarrena; Frantzia beste egin berri dute... Baina zoritxarrez, patronala oso eroso sentitzen da. Eskatzen duen guztia ematen dio gobernuak eta lan hitzarmen negoziazioetan, gero eta oldarkorrago dago: gure lan baldintza guztiak suntsitu nahi dituzte egun batetik bestera.

Eta aldaketak egiteko, krisia bezalakorik ez dago.

Krisigarai guztietan, langileon baldintzak okertzeko aukera ikusi izan ohi du patronalak. Zoritxarrez, gure gobernanteeek herria ordezkatu beharrean, honen zati bat bakarrik ordezkatzeko dute, hau da, patronala. Eta azkenean, hauek markatzen dituzte hartu beharreko erabakiak.

Metalgintza, grafikagintza, erakuntza... kalean ikusi ditugu, eta lan erreforma onartu aurretik gainera. Honek hasiera besterik ez dirudi.

Zoritxarrez patronala ez da konformatuko lan erreformarekin, hauek haratago joan nahi dute. Metalgintzako edo grafikagintzako hitzarmenean argi ikusi da, hauek hitzarmen guztiak suntsitu nahi dituzte. Negoziozietan ez da borrokatzen KPIaren igoera edo bi orduko lizentzia, ez; baldintza guztiak kendu nahi dituzte: lurralde mailako hitzarmena suntsitu eta estatuala bultzatu adibidez.



A. IMAZ

Orain guk daukagun erroka oso gogorra da, hori argi ikusten da mobilizazioetan: metalean lau egun egin dituzte greban, arte grafiketan bost, erresidentzietan bost, eraikuntzan mugagabea daude... Egoera oso txarra eta zaila da.

Egoera horrek ba al dauka erantzunik kalean?

Langileen erantzunarekin oso pozik gaude. Metalgintzan %90a kalera irten zen aurreko asteetan, eta arte grafikoen berdin. Nik uste jendea konturatzeko ari dela eta kontraturako dela, hemen guk dugun aukera bakarra gurea defendatzea dela. Egia da ez dela erraza kalera irtetea, baina ezer egiten ez badugu, egoera hobetuko al da? Ez dugun beste aukerarik.

CCOO-ek ere greba deialdia egin du, nahiz eta bere aldetik joango den.

Alde batetik esan beharra dago, CCOOek irailean 29rako deitu duela greba, data horretan Europa mobilizazio eguna delako.

Gure ustez, hauek ardurara Europari pasa nahi diote. «Zapaterok ez du errua; Europatik inposatu dizkiote aldaketak...» eta abar esanaz. Gehiengo sindikalaren ustez, ardurara, ditugun arduradun zuzenei eskatu behar zaie. Hala eta guztiz ere, iraila urrun dago eta ikusiko da greba egiten duten ala ez. Bestetik, Euskadiko CCOOek, asteartekoa babestu du. Baina hori esaten dutelarik bitartean, elkarrizketa sozialarekin jarraitzea beharrezkoa dela esaten dute. Gure lan baldintza guztiak aldatu nahi dituen patronala eta administrazioarekin, zer adostu behar dute? Besteak beste dirua nola banatu?

Sindikatuaren arteko zatiketa ulertzen ez duen langilerik ere bada.

Egokiena elkarrerkin egotea litzateke. Baina sindikatuak sindikatu izateko, ez du inorekin menpekotasun ekonomikorik eduki behar. Bestela, zerbait zor duzun seinale da, eta zor horiek ordaindu egin behar izaten dira. Gu indepen-

dienteak gara, eta ez dugu zorrik inorekin. Hori horrela izanda, proiektu sindikal bera dugunok urte pare bat elkarrekin gabilta borrokan. Bidea ikusten dugu: badakigu zer egin eta norantz jo behar dugun. Ateak ez dizkiogu inori ixten, ez da odol kontu bat, ez. Saiatzen dira horrela dela esaten, baina ez da hori. Modelo sindikal kontua da: zer egiten duzun, nola eta gauzak argi erakutsiz.

Eta nora doa bide hori? Nondik etorriko dira aldaketak?

Espainiako gobernuak banketxeek 300 milioi jarri dizkie mahai gainean. 2009. urtean, 60.000 hartu zituzten. Hori izan da defizit publiko gehien igo duena. Gero, defizit publiko aitzakiatzat hartuta, lan erreforma bultzatu dute, langileen baldintzak murriztuz. Nork ulertzen du hori? Guk hori ez dela posible esaten dugu. Defizita gutxitzeko, lehenik, ez dago inondik ere diru publiko banketxeek eman beharrik. Behin hori eginda, bi aukera dituzte: gastuak edo sarrerak ukitzen hasi. Gure ustez sarrerak handitu behar dira. Nola? Fiskaltasuna da bidea. Europa mailan, fiskaltasun gutxienean duen estatua Espainia da. Presio handitze horrekin batera, Europarekin parekatzeko, iruzur fiskala jarraitu behar da. Bide horretatik, defizit publiko desagertu egingo litzateke.

Sistema kapitalista honetan irau nahi dutenek aldiz, bidea hori ez dela diote: «Fiskalitatea ingotzen baldin bada, enpresek lehiakortasuna galdu eta kanpora ihes egingo lukete. Horrela, langabezia handituko litzateke».

Hori enpresak hemen egotearen arrazoi bat da, baina tartean beste hamaika daude: langileen gaitasuna, ingurua, errentagarritasuna... Lasai egon, enpresaburuek hemendik joatea erabakitzen dutenean, joan egingen dira. Orain artean horrela izan da eta fiskalitate presioa ez da izan aitzakia. Are gehiago, administratibotik diru laguntza ederrak jasota egun batetik bestera joan denik ere izan da. Enpresa buruek ez dute inongo kontzientzia, balore edo ikuspegi sozial edo gizatiarrik. Nahi dutenean eramaten dute kanpora enpresa. Fiskalitatea igotzen baldin badiguzu baina esaten dute baina hori ez da horrela.

ASTEASUKO UDALA

EKAINA // 28: Txupinazoa, Hour bazkaria, Kontzertuak,

Sorginaren jeitsiera, Bertso saioa **29:** Diana, Meza nagusia, Musika jaialdia, Kalejira, Kontzertua

30: Meza, Herri kirolak, Jubilatuen bazkaria, Dantza emanaldia, Erromeria **UZTAILA // 2:** Koadrilen bazkaria, Gotiberak, Musika kaleetan, Herri afaria, Diskofesta • **3:** Futbol txapelketa, Karta txapelketa, Zezen eta poneyak, Pelota finala, Kontzertuak • **4:** Pelota jaialdia, Herri kirolak, erromeria





Kartzelaren hotzetik berotasunera

VILLABONA ● Mikel Garmendia gaztea 2009ko martxoan atxilotu zuen Ertzaintzak. 2010eko ekainaren 8an berriz, Espainiako Auzitegi Nazionalak aske utzi zuen, fidantza ordaindu ondoren. Atzo, herritarrek eta

ingurukoek ongietorri ekitaldia egin zioten Villabonan. Jende ugari elkartu zen omenaldian. Euskal preso eta iheslariak gogoan izan zituzten bertan, baina zenu eta berri den Mikel Zalakain ere. **E.MAI**

Hitza Txapelketa azken txanpan

ERREDAKZIOA

VII. Hitza Txapelketa azken txanpan aurkitzen da. Herenegun eta atzo finalerdi partida ugari jokatu ziren. Besteak beste, benjamin, alebin eta infantiletan. Nagusietan,

Sukia-E. Galarragak lortu zuten finalerako txartela, atzo Tolosan jokatu zen San Joan Jaialdiaren baitan. Bihar, hilak 28, kadete eta jubencil mailako finalerdi bana jokatu da Beotibar pilotalekuan.

Jaialdia 18:30ean hasiko da eta Olano-Elustondok Goikolea-Irurtagoena izango dituzte aurkari. Jubeniletan, Urretabizkaia-Elejalde Juanenea-Aizpurren aurka lehiatuko dira.

E Emaitzak

PILOTA

VII. Hitza Txapelketa, finalerdiak

BENJAMINAK, ALBIZTURREN

Elizegi-Zabala	16
Morales-Zinkunegi	6
Ruiz-Zubeldia	14
Aizkorbe-Apezetxea	16

ALEBINAK, ALEGIAN

Mattin-Elola	14
Salaberria-Zubizarreta	16
Lezea-Karabal	16
Altuna-Irazustabarrena	5
INFANTILAK, BIDEGOIANEN	
Larrea-Peña	18
Laronbe-Sarasa	13
Arteaga-Aburuza	18
Azpiroz-Oskoz	1
SENIORRAK	

Sukia-E. Galarraga	22
Quina-Zubiri	14
San Joanetako Jaialdia	
Tolosako Beotibar pilotalekuan	
KADETEAK	
Mugika-Elustondo	18
Sagasti-Tolosa	22
EMAKUMEAK, PALA	
Nagore-Garmendia	24
Urkizu-Montes	30

Tolosako azokak bat egin du jai giroarekin

PABLO ALBERDI

Sanjoanek erosleen ordutegia aldatu baldin badute ere, pixkanaka-pixkanaka azoka jendez betetzen joan zen atzokoan. 1785. urteko ohiturari jarraituz, Zerkausian azoka ospakizuna bizitu zen atzokoan, larumbatero bezala.

Eskaintza beti bezala izugarria izan zen. Berrikuntzak azken astean agertu baldin baziren ere, atzokoan gorpuztea lortu zuten: Ibarrrako piperrek, azelga gorriek, kalabazinek, porru berriek eta tipula gorriek atentzioa deitu zuten azokako postuetan, barazkien artean.

Fruituei dagokienez, eskaintza goruntz doa: San Joan sagarrak, gereziak, aran gorriak... Baserrita-

rrek meritu izugarria dute, aurten go eguraldiak fruituen heltzea atzeratu egingo duela baitirudi.

Perretxikoetan, gibelurdiak eta ziza horiak ikusteko aukera ere egon zen.

Berdura plazari dagokionez, bertako azokak mende bat baino gehiagoko historia gainean duela gogoratu behar da. Atzokoan, lehen aldiz azalare landarea, brokolia eta kardoa ikusteko aukera egon zen. Horretaz gain, udako eskaintza zabalak aurrera jarraitzen du: tomatea, piparrak, letxuga, bainak, tipula...

Eskaintza eta kolore hauekin gustura ibili ziren azoka egunaz gozatu zutenak.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merka	Gares.
Landareak		
Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	4,00
Tomatea	3,00	4,00
Illarrak	10,00	12,00
Babak	3,00	-
Tipula gorria	1,50	-
Ibarrako piparrak	10,00	-
Bainak	3,00	4,00
Patata berria	1,50	2,00
Porruak	1,00	4,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Fruta		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Barazkiak (sorta)		
Zerba	2,00	-
Erremolatxa	1,60	-
Tipula	1,75	2,00
Azenarioa	2,00	2,50
Barazkiak (kiloa)		
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,60	3,04



Atzoko azokan, berrikuntzak gorpuzten doazela ikusi zen. **A. IMAZ**

XI. GARAGARDO FIESTA
UZTAILAK 1, 2, 3, 4 - Ondo "San Aiz" Pilotelekuan 16:00/18:00
IGANDEAN, UZTAILAK 4 BAZKARIK EMANGO DITUGU

GOSARI ONA

Gosari bereziak
Barra
Wifi gunea
plater konbinatuak
Janari latinoa
Razioak
Ogitariekoak
Okindegia
Larunbatetan dantzazeko aukera

Euskal Herria kalea 2, beheara
IBARRA • Tel.: 943 24 50 14

MENDIKO LARREAK
PASTOS DE MONTAÑA

LARREN KUDEAKETA ETA ABELTZAINZAKO JARDUNBIDE EGOKIAK
MINTEGI PRAKTIKOAK

1. Aralar eta Aizkorri-Aratzeko arantzaintzaren iragana, oraina eta etorkizuna
2. Larreen kudeaketa eta zaintzaren jardunbide egokiak
3. Larreak eta abeltzaintza kulturala
4. Mendik-itiera

Hartzaileak: Aralar eta Aizkorri-Aratzeko arantzainak eta abeltzainak
Non eta Noa: Ametzola, uztailak 3 eta 19. eta abuztuak 2 (aztekeriak)
Itzibila: uztailak 6 eta 20. eta abuztuak 3 (aztekeriak)
Alauk: uztailak 7 eta 21. eta abuztuak 4 (aztekeriak)
Arantzako Parke Naturala: abuztuak 7 (jarunbide)

Dohainik

Informa zaitzazu!
943 21 23 69 | www.mendikolarreak.net



EGUZKI AZPIKO FESTA

Enhunka lagun bildu ziren Euskal Herria plazan eginiko bazkarian. Ederki jan ostean, Jo ta hanka taldearen musikak alaitu zuen giroa. I.T.

ERREDAKZIOA

Egun beroa izan zen atzokoa. Beroa eguraldiari dagokionez, eta baita giroari dagokionez ere. Erraldoiak eta buruhandiak hasi ziren giroa berotzen, eta ondoren Bonberenea txarangakoek hartu zuten lekukoa. Hauek *Sutan* lelopean «Bonberenearen izaera bermatzea» aldarrikatu zuten, musika eta dantzarekin. Suhiltzaile be-

reziak izan zituzten horretan lagun, Pirritx eta Porrotx pailazoak.

Eguneko protagonista nagusiak koadrilak izan ziren atzo. Aurten, berrikuntza bezala, Euskal Herria plazan izan zuten bazkaria, eta bakoitzak prestaturiko janaria jan zuten. Itxura berezia ageri zuen plazak, izan ere, eguzkitik babesteko itzalkinez bete zuten.

Bazkalostean ere izan zen zer

ikusia. Herri kirolak gustuko dituenak Trianguloan zuen ikuskizuna, eta dantzak nahiago dituenarentzat Plaza Berrian izan ziren dantza saioak. Bitartean, gainera, sagardoarekin freskatzeko aukera ere bazen. Musika eta su festarako tartea izan zen gauean.

Bestalde, gaur izango da Jaien azken eguna, zezenak eta blues musika protagonista direlarik.

» GAURKO EGITARAUA

■ **Egun guztian zehar.** Herri Musika Tresnen Topaketa. Dultzaineroak, txalapartariak, albokariak eta trikitalariak kalez kale.

■ **10:30.** Zezen plazan xexentxoak eta zalditxoak haurrentzat.

■ **11:00.** Goizez eta arratsaldez, haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan.

■ **12:30.** Usabal kiroldegian areto futbola haurrentzat Arsenal Elkar-teak antolatuta (finalak).

■ **18:00.** Euskal Herria plazan *Rezikletas* haur ikuskizuna.

■ **18:00.** Zezen-plazan, zezen-errekortarien VI. Lehiaketa.

■ **20:00.** Mongo blues taldearen emanaldia Plaza berrian.



Abaltzisketan ere gaur esango diete agur

ABALTZISKETA ■ Giro ederrean igaro zuten atzoko eguna Abaltzisketan. Plater tiraketa egin ostean, Larraitz auzora abiatu ziren, eta han gazte-toek zuhaitzetan jolastu zuten. 50 haur inguru elkartu ziren. Bazkalostean, nagusiek musean jokatzen zuten, eta iluntzean, hainbat sargardo probatzeko aukera ere izan zuten, bertsoak entzutearekin batera. Gaur motozerra erakustaldia egingo dute goizean, eta arratsaldean zaldi lasterketa eta harri zultzaileak izango dira. Gauean, berriaz, dantzaldia izango da. E.M./I.T.



Bonberenea txarangak eta Pirritx eta Porrotxek, herri kirolek, dantza saioek eta sagardo dastaketak giro polita jarri zuten. I.T./E.M.

San Pedro jaiak hasi dira Urkizun eta Leaburun

ERREDAKZIOA

Herri batzuetan San Juanak bukatzerako, Leaburun eta Urkizun San Pedroak ospatzen hasi dira. Atzo eguerdian eman zieten hasiera suzirikin.

Urkizun, umeen bazkaria eta jolasak izan zituzten eta arratsaldean Ate Joka antzerkia izan zuten. Eguna bukatzeko, auzoko afaria izan zuten trikitilari eta bertsolariekin.

Leaburun, Zazpi Bide Elkartean Mus Txapelketa jokatu zuten. Ondoren, herri afaria izan zuten frontoian eta afari amaieran, asmakizun lehiaketa egin zuten. Musika

jartzen, Joseba eta Andoni trikitilariak aritu ziren.

Astelehenean Asteasuokoan hasiera, igandera arte

Bihar botako dute suziria eta igandera bitarte jai giroa izango da herrian. Haurren eguna ospatuko dute: jolasak, krosa, marrazki lehiaketa, haur parkea, bazkaria, Eidabe taldearen emanaldia...

20:30ean, sorginaren jaitsierarekin txupinazoa jaurtiko dute. 23:00etan bertso saioa Lizaso, Arzallus, Agirre, Lujanbio, Irazu eta Maiarekin eta ondoren, Maialen eta Kristinarekin erromeria.



Urkizun haurren bazkaria egin zuten eta Leaburun Mus Txapelketa jokatu zuten. E.MAIZ / I.TERRADILLOS

» GAURKO EGITARAUA

LEABURU

- **11:00.** Meza San Pedro elizan.
- **12:30.** Herriko gaztetxoaren arteko pilota partidak.
- **18:30.** Herriko dantzarien emanaldia.
- **19:30.** Herri kirol jaialdia: Mieltxo Saralegi harri jasotzailea eta Mujika eta Txapartegi aizkolariak.
- **Ondoren.** Buruhandiak.

URKIZU

- **11:00.** Tortilla lehiaketa.
- **11:30.** Erabilera anitzeko gunearen inaugurazioa.
- **12:00.** Tortilla dastatzea eta Sagardo lehiaketa.
- **12:30.** Toka txapelketa.
- **18:00.** Ume jolasak.
- **18:30.** Bolo lehiaketa.
- **Egun osoan.** Umeentzako puzgarriak eta trikitilariak.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Herri kirolak

■ **Zizurkil.** Gaur 18:00etan, Gipuzkoako Azkartasuneko Segura Txapelketa Eskolaren atzeko belardian. Bertan eskualdeko sei segulari egongo dira: Yurre Olano gazteluarra, Jokin Etxeberria amasarra, Joxe Gabirondo gazteluarra, Juan Joxe Lizaso asteasuarra, Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Jexux Mari Ormaetxea orendaindarra. Guztira bederatziz segalarik hartuko dute parte.

Lehiaketa

■ **Villabona.** Jaietako kartel lehiaketa. Egitarauaren azala egiteko lehiaketa edozeinek parte har dezake. Kartelean, *Villabona-Santio Jaiak-Uztaila 2010* agertu beharko da eta gutxienez, 18x24 formatua izan beharko du. Lanak udal bulegoetan aurkezteko azken eguna ekainaren 28a, astelehena, izango da. Antolatzailea: Udala.

■ **Tolosa.** 2011ko Tolosako egutegirako argazki lehiaketa erretiratu buruz da. Oinarriak <http://tolosagasa.blogspot.com> helbidean aurkitzen dira. Erakusketan jasotzen dituzten 40 argazkiri onenak bilduko dituzte eta ondoren, bisitariak argazkiri onena bozkatzeko aukera izango dute. Tolargi eta Tolosagasa izan dira lehiaketaren sustatzaileak. Argazkiak aurkezteko azken eguna irailaren 16a.

Deialdiak

■ **Alegia.** Uztailaren 3 eta 4rako Pirinioetara mendi irteera antolatuta da Alegiako Mendi Asanbladak. Izen-ematea, ohiko tokietan.

■ **Ibarra.** Jaietako Koadrilen Eguna antolatzeko bilera egingo dute koadrilek deituta. Horretarako bihar, astelehena, 19:00etan elkartuko dira Benito Izagirre kultur etxearen atarian.

■ **Tolosa.** Uztailaren 4an jubilatuen festa izango da. Izen-ematea, Harizpe eta Iturriza jubilatuen elkarrekin 3 eurotan.

■ **Aduna.** Bihar, ekainak 28, Adunako Udalak bilkura berezia egingo du 20:30ean, hil berria den Mikel Zalakain herritarri buruzko mozio bat aztertzeko. Bilkuraren ondoren, elkarretaratzea egingo dute plazan, Adunako Ezker Abertzaleak deituta. Udalak herritarrei deialdia luzatu diete, bilkura eta elkarretaratzerara agertzeko eskatuz.

■ **Berastegi.** Gaztañondo jubilatuen elkartetik ibilaldi polita antolatu dute uztailaren 2rako: Errioxako Briones herrira. Bazkaria Hotel Ciudad De Haron egingo dute eta ondoren dantzaldia egingo da. Izen-ematea, elkartean bertan egin beharko da, 10 euro ordainduta. Antolatzailea: Gaztainondo jubilatuen elkarteak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Udalbiltzakoei babesa

TOLOSA • Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, gurean ere atzo, elkarretaratzeak egin zituzten. Tolosan, nahiz eta San Joan Jaiak izan, tolosarrek ez zuten hitsik egin eta Udalbiltza auziko hogei eta bi akusatuei

elkartasuna adierazi zieten, *Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari* lelopean. Udalbiltzaren aurkako epaiketaren atarian egonik, auzia bertan behera utzi dezaten eskatu zuten. INIGO TERRADILLOS

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



ziklo guztiak
euskaraz

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

► Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak

► Mekanizazioa

► Soldadura eta Galdaragintza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra